



PRENTSA OHARRA: 2020.12.02

Etxepare Euskal Institutuak erakunde-ekitaldi ikusgarria egingo du, bere 10. urteurrena dela eta

- **Abenduaren 9an Tabakaleran egingo den ekitaldian, Sra. Polaroiskak zuzendutako ekintza performatiboa egingo dute, eta Institutuaren kanpaina berria aurkeztu.**
- **Edukiera mugatuko ekitaldia streaming bidez emango da.**

Aurten **Etxepare Euskal Institutuak 10 urte** bete ditu, euskara eta euskal kultura nazioartean sustatzen. Hori dela eta, datorren asteazkenean, hilak 9, 16:30ean hasita, Donostiako Tabakalerako Prisman egingo den erakunde-ekitaldi ikusgarrian, **Sra. Polaroiska duoak** ekintza performatiboa zuzenduko du, eta Institutuak 10. urteurreneko **kanpaina berria** aurkeztuko du, protagonistak euskara eta euskal kultura munduan zabaltzen lagundu duten 11 pertsona direla.

Covid-19ren aurkako segurtasun-neurriek aretoaren edukiera nabarmen mugatuko dutela, ekitaldia [Streaming bidez](#) emango da eta parte hartuko dute Irene Larraza Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak, eta Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu eta Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak.

Info+

Beñat Doxandabartz
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus